

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



IV MODULOA ANIZTASUNA ESKOLAN

2023/24 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

HEFA II ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA

	31 taldea	32 taldea
Eskola inklusiboaren oinarriak	Andoni Arguiñano	Leire Ugalde
Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan	Lorena Revuelta	Marta Sarasa
Lehen Hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanizetan	Eider Rodríguez	Ane Odria
Ikastetxearen antolakuntza	Ander Azkarate	Elizabeth Pérez

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	5
2. Konpetentziak eta ebaluazio irizpideak.....	5
3. Taldeen egitura.....	7
4. Ebaluazioa.....	7
5. Lan gidatua	
5.1. Lanaren aurkezpena.....	8
5.2. Lanaren urratsak.....	8
5.3. Lan idatziaren egitura.....	9
6. Ahozko aurkezpena: mahai-inguruak.....	10
7. Kronograma.....	11
8. Moduluko irakasle arduradunak eta lan taldearen tutoreak.....	12
9. Eranskinak	
1. eranskina: aztertu beharreko egoera.....	13
2. eranskina: lehen zirriborroa.....	22
3. eranskina: bigarren zirriborroa.....	23
4. eranskina: talde lanerako errubrika	24
5. eranskina: lan idatziaren ebaluaziorako errubrika	25
6. eranskina: mahai-inguruaren ebaluazio irizpideak	27
7. eranskina: aipuak jasotzeko araudia.....	28
8. eranskina: taldeen fitxa.....	31
9. eranskina: moduluaren ebaluaketa gida ikasleentzat.....	32
10. eranskina: moduluko lana egiteaz salbuestea.....	33
11. eranskina: moduluko lana gainditu ezean.....	34

1. Sarrera

Aurreko moduluetan egin bezala, 2. mailako bigarren lauhileko honetan ere, moduluko irakasgai guztien artean lan modularra jarriko da martxan. Irakasgai bakoitzak bere kompetentziak ditu, baina hainbat kompetentzia zeharkakoak dira, irakasgai guztien artean landu beharrekoak. Horiek lortzera bideratua da hemen aurkezten den lana. Lauhileko honetan honako irakasgaiak izango dituzte ikasleek:

- Eskola inklusiboaren oinarriak (6 kreditu)
- Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan (6 kreditu)
- Lehen Hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan (6 kreditu)
- Ikastetxearen antolakuntza (6 kreditu)

2. Kompetentziak eta ebaluazio irizpideak

Ondoko taulan zehazten dira Lehen Hezkuntzako Graduako titulazioaren arabera modulu honetan landu behar diren zeharkako kompetentziak eta kompetentzia horietatik eratortzen diren ikaskuntza-ondorioak.

GRADUKO KOMPETENTZIAK	LAN MODULARREKO KOMPETENTZIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
G004	1. Lehen Hezkuntzako ikasgelan aniztasunaren inguruan eman daitezkeen egoerak identifikatzea eta taldean horren berri elkarri ematea.	1.1. Aniztasunaz begirunez hitz egiten du.
		1.2. Gatazka egoerak hobekuntzarako eta aldaketarako erabilgarri ikusten ditu.
		1.3. Elkarlanean konfiantzaz aritzen da.
G011	2. Hezkuntzaren arloko dokumentazio zientifikoak bilatzea, gaur egun onartuak diren datu baseak erabiliz hautatzea (Dialnet, Web of Science, Scopus, Web of Knowledge) eta marko teorikoa osatzea.	2.1. Esanguratsuak diren iturriak bereizten ditu.
		2.2. Jasotako informazioa bahetzen eta uztartzen du.
	3. Hezkuntza gaietako buruzko dokumentuak zuzentasunez idaztea, ideien antolaketa	3.1. Testua era kohesionatu, koherente, egoki eta zuzenean taxutzen du

G013	egokia eginez, kohesioa mantenduz eta gidoian agertzen den eskema jarraituz.	3.2. Gaiari dagokion terminologia espezializatua erabiltzen du.
		3.3. APA arauak behar bezala jarraitzen ditu.
G005 G008	4. Hezkuntzako testuinguru eta egoerei buruzko teoriak (dokumentazio zientifikoa) aztertuta, praktika zehatzekin uztartzea eta diziplina anitzetatik osatutako ekarpenak proposatzea, sormenez.	4.1. Teoria desberdinen argi-ilunak jasotzen ditu.
		4.2. Teoriak aztertutako kasuarekin lotzen ditu.
		4.3. Planteatutako egoerei aurre egiteko hezkuntza erantzun egokiak proposatzen ditu.
		4.4. Taldearen nortasunetik abiatutako proposamenak egiten ditu.
G013	5. Ikerketa prozesuan koherentziaz antolatutako informazioaren eta elaboratutako ideien sintesia ahoz aurkeztea eta besteen diskurtsoak irekitasunez errespetatzea.	5.1. Eskolako aniztasuna aztergai duen ikerketaren emaitza ahoz jendarteratzen du mahai-inguruaren testuinguruan.
		5.2. Trukean jasotako iritziak begirunez onartzen ditu.
		5.3. Sor daitezkeen diskurtso anitzak aintzat hartzen ditu.
G012	6. Hezkuntza erakundeetako aniztasuna aztergai izanik, gogoetarako galderak eta hobekuntza egingarriak planteatzea, modu kolektiboan hausnarketa kritikoa sortaraziz.	6.1. Planteatutako hezkuntzarako aniztasun egoerak irizpidez balioesten ditu.
		6.2. Kasu bakoitzaren esku-hartzea hobetzeko proposamenak egiten ditu.

3. Taldeen egitura

- Bosteko taldeak osatuko dira moduluko lana burutzeko.
- Taldeak ikasleek osatuko dituzte.
- Talde bateko kide izateak berekin dakar eskoletara etortzeko konpromisoa eta talde-lanean parte hartzeko betebeharra.

4. Ebaluazioa

Moduluko lanak irakasgai guztietako ebaluazioaren %20 balioko du. Gainerako %80 irakasgai bakoitzeko irakasleak zehaztuko du. Irakasgaiak gainditzeko nahitaezkoa izango da moduluko lana ere gainditzea. Moduluko lanari dagokion ehuneko hori honela banatuko da:

- Lanaren prozesua eta mahai-ingurua (%5)
 - Prozesua lana tutorizatuko duten bi irakasleen artean ebaluatuko da. Aintzat hartuko da zereginak epean eta behar bezala aurkeztea (zirriborro bakoitzaren eskakizun zehatzei lotzea) eta, oro har, lanaren prozesua behar bezala burutzea. Era berean, egindako iradokizunak zirriborroetan aintzat hartzea eta tarteko urratsak eskatutako prozeduren arabera egitea baloratuko da.
 - Mahai-inguruak: ikus ebaluazio irizpideak 6. eranskinean.
- Lanaren txosten idatzia (%15): ikus ebaluazio irizpideak 5. eranskinean.

Moduluko irakasgai guztietan matrikulatuta ez dauden ikasleen kasuan, honela jokatu da: irakasgai bakarra egin behar duen ikasleak irakasleak zehaztutako ebaluazio-sistema jarraituko du eta ez du moduluko lanik egin beharko. Moduluko bi irakasgaitan edo gehiagotan matrikulatuta dauden ikasleek moduluko lana egin beharko dute.

- Ikasle guztiek egin behar dute moduluko lana (ikus 10.eranskina, "Moduluko lana egiteaz salbuestea", azken orrian).
- Irakasgairen bat gainditzeko ez bada, baina moduluko lana bai, horri dagokion nota gorde egingo da ezohiko deialdira arte.

5. Lan gidatua

5.1. Lanaren aurkezpena

Modulu honetan, Lehen Hezkuntzako eskola batean kokatzen den egoera baten azterketa egingo da (ikus 1. eranskina). Horretarako, aukeran dauden 8 egoeretatik bat hautatuko da (guztiak esleituta geldituko dira dauden taldeen artean). Egoera bakoitzari dagokion informazioa jaso eta eduki teorikoekin kontrastatu ondoren, eskola-komunitateak egoera horri eman diezazkiokeen erantzun posibleak aztertu eta esku-hartze proposamen bat diseinatuko da. Lanaren azken xedea artikulua akademiko bat idaztea izango da. Halaber, lana gainerako ikasleei ahoz aurkeztu beharko zaie horretarako prestatutako mahai-inguruetan.

5.2. Lanaren urratsak

5.2.1. Taldeen osaketa: taldearen fitxa bete eta irakasle tutoreari eman.

5.2.2. Lanaren garapena:

A) Hasierako egoera aztertu eta labur azaldu.

- **Egoeraren azterketa:** aukeratutako egoerara hurbiltzeko, ondorengo galderak erantzungo dira taldean: zer dakigu arazo edo gai honi buruz? Ezagutzen al dugu antzeko egoerarik? Entzun al dugu inoiz gai honen inguruko ezer? Antzekorik bizi izan al dugu? Zeintzuk dira planteatutako egoeraren gako nagusiak? Ondoren, planteatzen den egoeraren funtsa ondo ulertzeko, talde bakoitzak dituen zalantzak (terminologia, kontzeptuak eta abar) zehaztuko dira.
- **Egoeraren azalpena:** egoeraren gakoak identifikatu eta honen inguruan hausnartu ondoren, paragrafo batean azaldu beharko da taldeak egoeraren zein irakurketa egiten duen.

B) Irtenbideak bilatzeko bidea egin.

Egoerari konponbidea emateko ondorengo bi urratsak jarraituko dira:

- **Esku-hartzearen behin behineko helburuak finkatu:** zeintzuk izango dira identifikatu ditugun gakoetatik abiatuta gure esku-hartzearen helburu nagusiak? Zer lortu nahi dugu diseinatuko dugun esku-hartzearen bidez?
- **Informazio bildu eta partekatzeko prozedura zehaztu:** egoera horren ezagutzan sakontzeko bilatu beharreko informazioa zein datu basetan bilatuko den eta lan hori taldekideen artean nola banatuko den azalduko da, baita bildutako informazioa taldekideen artean nola partekatuko den ere.

D) Informazioa bilatu, hautatu eta aztertu ostean, marko teorikoa idatzi.

Taldekide bakoitzak aurkitutako informazioa gainerako taldekideei aurkeztu ondoren, marko teorikoa idatziko da APA araudiari jarraituz (testu barruan zein erreferentzia bibliografikoen zerrendan).

E) Behin behineko helburuak doitu, behin betikoak finkatu.

Marko teorikoan bildutako edukiak kontutan hartuta, behin behineko helburuak errebisatu eta doitu beharko dira behin betiko helburuak finkatzeko. Proposamen hori moduluko irakasgaien ikuspegi orohartzaile batetik abiatuta egin beharko da.

F) Esku-hartzea diseinatu.

Esku-hartze proposamen bat diseinatuko da finkatutako helburuei erantzuteko. Esku-hartze hori lanaren marko teorikoan oinarrituko da eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko proposamen bat izango da.

G) Ondorioen zehaztapena, ikasitakoaz eta jarraitutako prozesuaz ebaluaketa eta entregatu beharreko lanaren azken bertsioa prestatu.

5.2.3. Lanaren aurkezpena: Ikasle talde bakoitzak txosten idatziaren kopia bat aurkeztuko die egokitu zaien mahai-inguruan ebaluatzaile gisa jardungo duten bi irakasleei.

5.3. Lan idatziaren egitura

Lanak artikulu akademiko baten egitura eta ezaugarriak izango ditu, eta honako atalak izango ditu:

1. Izenburua: edukia jaso eta laburbildu behar du. Erakargarria eta sortzailea izan behar du.

2. Abstract-a: euskaraz eta ingelesez. 150 hitz gutxi gorabehera hizkuntza bakoitzean: lanaren laburpen txikia, atal guztien berri jasoz eta ekarpen nagusiak zein diren azalduz.

3. Hitz gakoak: 4 gehienez.

4. Sarrera: irakurlea kokatuko du irakurtzera doan lanean: egoeraren aurkezpen-deskribapena, lanaren helburu orokorra eta egitura.., aurreratuko dira.

5. Marko teorikoa.

6. Helburuak.

7. Esku-hartzea.

8. Ondorioak: Burututako esku-hartzearen sintesia, egindako ekarpen nagusiak azpimarratuz marko teorikoaren argitan.

9. Talde hausnarketa: lanari buruzko gogoeta egingo da talde lanerako errubrikatik eratorritako hausnarketak erabiliz (eta aktak jaso dituztenen kasuan, hauek baliatuz): prozesuan izandako bizipenak, sortutako gogoetak, aurreiritzien egokitasuna, taldekideen ikuspegia zertan aldatu den, zer ikasi den lan honen bidez ...

10. Erreferentziak

11. Eranskinak: Talde lanaren errubrika beteta, moduluko laneko ebaluazio orria (9. eranskina) eta bestelako dokumentuak.

Formatuari eta aurkezteko moduari dagokionez honako ezaugarriak izan beharko ditu artikuluak:

- Erreferentzia bibliografikoak eta aipuak APA 7 (American Psychological Association)-ren arauen arabera emango dira.
- Luzera: 15-20 orrialde, eranskinak kontuan hartu gabe
- Letra-tamaina: ARIAL 12
- Lerro-arte: 1,5.
- Formatua: Word, PDF eta paperean (2 kopia).
- Grapatuta eta koadernatu gabe.

6. Ahozko aurkezpena: mahai-ingurua

Lan idatzia aurkeztu ostean, azken eskola-asteko ostegun eta ostiralean mahai-inguruak egingo dira, horretarako ordutegi berezia zehaztuta. Mahai-inguruen helburua taldeek elkarren lanaren berri izatea eta lana egitean ikasitakoaz hausnarketa partekatua egitea da. Honela antolatuko dira mahai-inguruak:

- Mahai-inguruak ordu eta erdiko blokeka banatuko dira eta bloke bakoitzean 4 taldek hartuko dute parte.
- 1. atala (40 min): ikasle-ekipoetako bozeramaileak/bozeramaileek (taldeak berak erabakiko du bat ala bi izango diren) 10 minutu izango ditu lanaren edukia azaltzeko.
- 2. atala (45 min): ikasle guztien arteko solasaldi-eztabaida egingo da, irakasleek gidatuta. Bozeramaile izan ez diren taldekideek parte hartu beharko dute.

7. Kronograma

ASTEA		ZEREGINA	NOIZ
2. astea	Urtarrilak 29-Otsailak 2	Txostena aurkeztu eta zalantzak argitu (ikasleek etxean irakurrita ekarriko dute). Hurrengo saiorako egoera guztiak irakurrita eta gustukoena hautatuta.	Saio teoriko batean. 31 TALDEA: "Lehen Hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan" irakasgaian. 32 TALDEA: "Eskola Inklusiboaren oinarriak" irakasgaian.
2. astea	Urtarrilak 29-Otsailak 2	Taldeak osatu, egoera aukeratu eta irakasle arduradunari fitxa entregatu. Talde batek baino	31 TALDEA: "Lehen Hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak

		gehiagok egoera bera aukeratuz gero, zoriz egingo da banaketa.	testuinguru eleanitzetan” irakasgaian. 32 TALDEA: “Eskola Inklusiboaren oinarriak” irakasgaian.
3. astea	Otsailak 5-9	Aipuak APA 7 araudiaren arabera egiteko eta informazio bilaketarako baliabideak eskaini.	Saio teoriko batean. 31 TALDEA: “Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan “ irakasgaian. 32 TALDEA: “Ikastetxearen Antolakuntza” irakasgaian.
4. astea	Otsailak 12-16	Hasierako egoera aztertu eta gakoak identifikatu. Irtentidea bilatzeko bidea egin: -Egoera aztertu eta gaiak dakiguna eta jakin nahi duguna definitu. -Esku-hartzearen behin behineko helburuak definitu.	31 TALDEA: “Ikastetxearen antolakuntza” irakasgaiko saio praktiko batean. 32 TALDEA: “Lehen Hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan” irakasgaiko saio praktiko batean.
5. astea	Otsailak 19-23	-Taldea dinamikak.	31 TALDEA: “Eskola inklusiboaren oinarriak” irakasgaiko saio praktiko batean. 32 TALDEA “Eskola inklusiboaren oinarriak” irakasgaiko saio praktiko batean.
5. astea	Otsailak 24	1. zirriborroa entregatu (ikus 2. eranskina).	Talde bakoitzak bere tutoreei entregatu.
6. astea	Otsailak 26-Martxoak 1	1. zirriborroaren feedbacka.	Tutorearen saio praktiko batean.
9. astea	Martxoak 18-22	2. zirriborroa entregatu (ikus 3. eranskina).	Talde bakoitzak bere tutoreei entregatu.
10. astea	Martxoak 25 –martxoak 29	2. zirriborroaren feedbacka.	Tutorearen saio praktiko batean.

12. astea	Apirilak 15-19	Lan idatziaren egituraketa errepasatu eta mahai-inguruak prestatzeko saioa.	31 TALDEA: "Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan" irakasgaiko saio praktikoko batean. 32 TALDEA "Ikastetxearen Antolakuntza" irakasgaiko saio praktikoko batean.
14. astea	Apirilak 29-maiatzak 3	Lana erredaktatu.	Irakasgai guztietako saio guztietan.
14. astea	Apirilak 29-maiatzak 3	Lana entregatu.	Talde bakoitzak bere tutoreei entregatu.
15. astea	Maiatzak 6-10	Mahai-inguruak	Ordutegi berezia ostegun eta ostiralean (eskola-saiorik ez).

**Udaberriko oporraldia: apirilak 6-14*

8. Ahozko aurkezpena: mahai-ingurua

Lan idatzia aurkeztu ostean, azken eskola-asteko ostegun eta ostiralean mahai-inguruak egingo dira, horretarako ordutegi berezia zehaztuta. Mahai-inguruen helburua taldeek elkarren lanaren berri izatea eta lana egitean ikasitakoaz hausnarketa partekatua egitea da. Honela antolatuko dira mahai-inguruak:

- Mahai-inguruak ordu eta erdiko blokeka banatuko dira eta bloke bakoitzean 4 taldek hartuko dute parte.
- 1. atala (40 min): ikasle-ekipoetako bozeramaileak/bozeramaileek (taldeak berak erabakiko du bat ala bi izango diren) 10 minutu izango ditu lanaren edukia azaltzeko.
- 2. atala (45 min): ikasle guztien arteko solasaldi-eztabaida egingo da, irakasleek gidatuta. Bozeramaile izan ez diren taldekideek parte hartu beharko dute.

ERANSKINAK

1. eranskina: azertu beharreko egoera

Zortzi egoera desberdin aurkezten dizkizuegu jarraian. Talde bakoitzak egoera bakar bat aukeratu eta aztertuko du. Banaketa egiteko orduan kontuan hartuko da ezingo dela egoerarik azertu gabe gelditu (irakasleak erabakiko du banaketa hori egiteko formularik egokiena zein den).

1. egoera: Samira hijabarekin etorri da eskolara

Eskolan, jendartean bezala, gero eta aniztasun gehiago dago: Identitate desberdinak dituzten ikasleak eta irakasleak, autoktonoen seme-alabak, etorkinen seme-alabak, egoera ekonomiko desberdinak dituztenak, erlijio desberdinak praktikatzen dituzten familiak, erlijiorik praktikatzen ez dituztenak, hainbat ama-hizkuntza, gaitasun ezberdinetako ikasleak...

Samira, bosgarren mailako neska bat da eta gaur hijaba jantzita etorri da eskolara lehenengo aldiz. Samira neska Donostiarra da. Bere gurasoak Marokotik etorri ziren duela 12 urte eta bera Donostian jaio zen. Bere gurasoak musulmanak dira eta bere amak ere hijaba janzten du.

Samira gelan sartu denean bere ikaskideak harrিতuta geratu dira eta irakasleari begiratu diote, bere erreakzioaren zain. Irakasleak ez du ezer esan, baina klasea bukatutakoan, gaia zuzendaritzara eraman du. Zuzendaritzako partaide batzuek gogoratu dute, eskolako araudiaren arabera, ezin dela burua estalita ekarri eskolara. Beste batzuek hijaba Islamaren matxismoaren isla dela uste dute. Badira gai konplexua dela iritzi dutenak, eta ezin dela horren sinpleki epaitu argudiatu dute azken horiek. Azkenean jarrera bat gailendu da eta erabaki bat hartu ere: Zuzendaritzak gurasoekin hitz egingo du eta Samira burua estali gabe eskolara etortzea eskatuko die, zapia eramatea ez baita egokia.

Ez da familia horrekin egon den gatazka bakarra; izan ere, pasa den urtean Islama ikastetxean irakasgai moduan eskaintzeko eskaera egin zuten gurasoek, eta gaia (Islama irakatsi behar den ala ez) ez da oraindik erabat argitu. Halaber, familiari ez zaio egokia iruditu ikasturte honetan eskolak aukeratu duen gaia inauterietarako: Eskola osoa “mairuz” jantzita joango da. Familiak tutorearengana jo du beste mozerro bat aukera dezaten eskatuz. Horrez gain, Samira ez dago apuntatuta eskola-kirolean eta ez da joan ingeles barnetegira ez igeriketa ikastarora. Tutoreak uste du arrazoi kulturalengatik ez diola familiak alabari horrelakoetan parte hartzen uzten. Irakasle batzuek diote exijentzia gehiegi planteatzen duela familia horrek eskolan, ez beti egokiak. Halaber, irakasle talde batek pentsatzen du, familia ez dela euskal jendartearen ondo integratzen ari, etapako orientatzailea barne.

Zuzendaritza gurasoekin elkartu da eta eztabaida luzea izan da. Ez dira adostasun batera heldu. Gurasoek haien jarrera mantendu dute eta zuzendaritzak berea. Zuzendaritzak Samirari gertatutakoaz galdetu dionean, neskak erantzun du berari bere gurasoek esandakoa egitea ondo iruditzen zaiola. Irakasle batzuek zalantzan jarri dute haurrak erabakitzeko duen benetako aukera. Gaia gurasoen elkartera eta beste familiengana heldu da. Familien iritziak bananduta daude eta eztabaida biziak sortzen dira patioan eta auzoan.

Azkenik, erabaki bat hartu da zuzendaritzan: Samira ez da bere gelan berriz sartuko eta ez da patiora aterako zapia kendu arte. Bitartean irakasle gelan egongo da, irakasleek ekarriko dizkioten lanak egiten. Otsaila da, eta badirudi egora ez dela laster konponduko. Egonezina sortu da ikastetxean: Irakasle eta guraso batzuk ados daude hartutako erabakiarekin, beste batzuk, berriz, ez. Gertatutakoa prentsara iritsi da, izan ere, eskolako guraso batzuek haien iritzia eman dute bertan. Eskolako guraso batek dio Samiraren familiak jarrera atzerakoia duela eta ez dela posible izan haiekin akordio batera heltzea.

2. egoera: Milenka Errusiatik adoptatua izan zen neska

Milenka 7 urteko neska da. Errusiatik duela urtebete ekarri zuten bere guraso diren Eider eta Idoiak. Duela 6 urte hasi zituzten adopzio tramiteak, egun 9 urte dituen seme Beñati anai-arreba bat emateko asmoz.

Siberia aldera jaio zen. 4 urte izan arte, “Sehaska etxea” moduko umezurtz batean bizi zen. Ondoren “Haur etxe” batera joan zen eta bertan eman zituen hurrengo 3 urteak. Bere adopziozko amak Errusiara joan ziren beraren bila eta egun Errenterian bizi dira.

Milenka neska txikia da fisikoki; bere adinakoekin alderatuz baxua eta argala. Neska oso argia eta mugitua da, benetan bizia eta irribarretsua. Kiroletan aparta da. Sorkuntzarako abilezia ugari ditu, eta egia esan “todoterrenoa” dela dirudi. Edozein lekutan joanda ere, oso ongi egokitzen da, pozik adierazten du bere burua eta jende guztiak aipatzen du zein jatorra, alai den, beti ere “bihurri” puntu hori izanik. Aitona-amonak ere txoratuta ditu.

Hizkuntza arloari dagokionez, etorri zenean, errusieraz bakarrik hitz egin arren, komunikatzeko gaitasun handia erakutsi izan du hasieratik. Familian euskaraz hitz egiten dute, baita eskolan ere non HIPI (Hizkuntza indartzeko irakaslea)-ren laguntza jasotzen duen. Bai etxean baita eskolan ere euskara eta espainola zein azkar ikasi duenaz harrিতuta daude. Eskolaratzea ikasturtea hasita zegoela burutu behar izan denez, eta batik bat hitzezko eta idatzizko hizkuntzarekin zituen mugak kontuan hartuz, adinez dagokiona baino maila bat baxuagoko gelan sartzea erabaki zen, 1. mailan hain zuzen ere. Egun, lagun asko ditu eskolan.

Hala eta guztiz ere, atzoko gertakaria dela eta, eta duela gutxi azaltzen ari diren jokabide berri batzuk tutoreak bilera bat egitea erabaki du.

Atzo, ama Idoia berandu iritsi zen eskolara bere bila. Ondorioz, Milenkak "krisialdi emozional" larria izan zuen: negar batean, konsolaezinean, oso oso urduri zegoela eta nahiz eta tutoreak ahalegin handiak egin Milenka lasaitzeko, haurra eutsi ere ezin izan zuen egin eta eskolatik ihes egiten saiatu zen ama bila joateko.

Honekin batera, tutoreak azken bolada honetan berarekiko gehiegizko dependentzia duela azpimarratzen du. 7 urte ditu dagoeneko eta oinarrizko gauza batzuetarako, lehenik bera bakarrik egiten zituztenak, bere laguntza eskatzen du une oro. Batzuetan autonomia dela dirudi baina beste batzuetan berriz, ume askoz txikiagoa izango bazina bezalako jarrerak erakusten ditu, mimo pila bilatzen ditu eta helduekin egon nahi du denbora guztian. Bere ama Idoiak, antzeko zerbait aipatu izan du bileran: behatza zurrupatzen hasi dela, pixa gainean egiten duela noizbehinka, denbora guztian bere magalean egon nahi duela eta denbora guztian jakin behar du gurasoak non dauden, nahiko urduri azalduz bietako bat ez dagoenean. Bi amak kezkatu daude, Milenkak azaltzen duen urduritasunarekin batera, beste jokabide kezagarri batzuk azaldu direlako: etxean lapurketa txiki batzuk, janaria ezkutatu, gezurrak esaten hasi dela ...

Egia da, Errusian kontatu zieten moduan, Milenka umezurtzetik kalera ihes egiten zuela janaria lapurtzera edo dirua eskatzera, hango lagunei emateko eta bertan beste umeen aldetik oso baloratua izaten zela horrexegatik.

Milenkak ez du eskolara joan nahi. Egia da etorri zenean, hizkuntza ez zuela ezagutzen, ezin zuen adierazi. Orain, etxean geratzearen beharra era batera edo bestera adierazten du: gaixorik dagoela esaten du, eskola ez zaio gustatzen eta denbora galtze bat dela dio... Gerta daiteke, eskolan lantzen dena arrotza izatea berarentzako. Hori dela eta, tutoreak Errusiaren inguruko proiektu bat egitea pentsatzen ari da, ea era honetan, Milenkaren eskolarekiko motibazioa igotzen den.

Bestelako irakasleak ados daude Milenkak gaitasun asko dituela esaterakoan, baina bere jokaera dela eta, asko kostatzen zaio arreta jarri eta mantentzea. Gainera, eskolan ere berarenak ez diren gauzak baimenik gabe hartu eta ezkutatu ditu, jolasetan trikimailuak erabiliz besteak engainatzen ditu, gezurrak esaten ditu...

Azken bolada honetako bere jokaera arazotsuak bitarteko, dagoeneko ikaskide batzuek ez dute berarekin egon nahi izaten. Etxean gurasoen arreta guztia berak jasotzen du eta ohikoak dira bere anaiarekin liskarrak. Beñatek dio Milenkak gauzak kendu edo lapurtzen dizkiola eta dagoeneko bere PSP-a lapurtu eta trukatzea lortu du bere gustuko joko baten ordean.

Aipatutako jarrera kezagarri horiek bere adopzioarekin lotura izan dezaketenaren zalantza airean dago. Irtsi zenetik gauzak nahiko errazak izan ziren. Orain adopzioa okertzen ari delaren beldur dago familia.

Bere iraganean bizitako esperientziei buruzko informazio asko ez dute. Bukatzeko ea bere sorrera nola landu ere planteatu da bileran. Hau da alde batetik sorrera kulturala baina bestetik jaiotzetik sorrera, azken hau gehien kezkatzen zaiona bere familia adoptiboari.

3. egoera: Aimar adimen desgaitasuna duen ikaslea. Harrera etxe batetan bizi da.

Aimarrek 10 urte ditu eta 4. mailan dago. Harrera etxe batetan bizi da, hezitzaile eta beste ume batzuekin batera. Bere gelan 25 ikasle dira. Aimarrentzat Norbanako Curriculum Egokitzapen global (NCE) bat diseinatu da, adimen desgaitasuna duelako. Adimen desgaitasunaren definizioa kontutan harturik, hurrengo arlotan ditu laguntza beharrak: komunikazioan, autonomian, trebetasun akademiko-funtzionaletan eta gizarte trebetasunetan gehien bat. Wechsler-en sailkapenean bere adimen koefizientea 54-40 artean dago.

Era esanguratsuan aldatu dira curriculumaren funtsezko elementuak. Curriculum- erreferentziako maila arlo batzuetan Haur Hezkuntzako azken ziklokoa da (hiru hizkuntzena) eta beste batzuetan Lehen Hezkuntzako lehenengo ziklokoa da (eduki akademikoak, autonomia eta gizarte trebetasunak).

Koordinazio motorean zailtasunak ditu: finean eta sendoan. Adibidez zapatak lotzea kostatzen zaio, nahiko letra txarra du, askotan irakurtezina izanik.

Espazioan orientatzeko, lateralitatea ezberdintzeko (ezker/eskuin), eragozpenak ditu.

Harreman sozialak bideratzeko orduan oztopoak ditu, ez-hitzezko lenguaia interpretatzeko arazoak, esate baterako, keinuak, begiradak, espresioak, besteak beste, ez ditu ongi antzematen.

Bulkadak kontrolatzeko zailtasunak azaltzen ditu, eskolara ez da egokitzen eta zaila egiten zaio frustrazioa jasatea. Emozioak kudeatzeko eta sozializatzeko zailtasun horien atzean familiarengandik tratatu txarrak eta abandonua jasan izana egon daitezke. Lau urte zituenetik harrera-egoitzetan bizi izan da, eta egoitza bat baino gehiagotik pasa da. Adimen desgaitasunaren zergati zehatza ez dago batere argi: utzikeriaren ondorioa izan daitekeela diote aditu batzuek, eta beste batzuen ustez etiologia genetikoa da.

Ikastetxea itunpekoa da. Bertan eskolatzeko, "trabak" izan ziren eskolaren aldetik. Azkenean, Berritzeguneko hezkuntza premia berezietarako aholkulariak esku hartu behar izan zuen. Ikastetxea Aimar bizi den etxebizitzako erreferentziako hezitzailearekin jartzen da harremanetan, baina Aimarri buruzko kezka helarazteko soilik. Hezitzaileak uste du irakasleak ez direla asko inplikatzeko eta ez direla ia saiatzeko aniztasunari kalitatezko arreta emateko saiakerak egiten, aniztasuna edo Aimar zehazki, "arazo", "zama" bezala bizi direlako. Ikastetxearekiko harremana gero eta zailagoa da. Izan ere, ikastetxe-hezitzailearen arteko lana eskasa eta zailtasun beterikoa dela, eta honek Aimarri kalterik besterik ez diola egiten dio harrera etxeko hezitzaileak. Oro har, hezkuntza-zentro horretan gizarte arazoekiko sentsibilizazio gutxi dago, ikastetxearen lehentasun nagusia ikasleen ikasketa akademikoak dira, emaitza akademiko bikainak lortzea hain zuzen ere.

Kasu hau irakasleen eta hezitzaileen arteko komunikazio ezaren adibide garbia da. Aimar gatazkatsutzat jotzen zuten irakasleek, eta zentrotik lehenbailehen ateratzea lortu nahi zuten. Ikaskideak jo egiten zituen eta ubeldurak uzten zizkien. Hezitzailea ikastetxera joatea ere eskatu zuen zentroak, bai gelan, bai jolas-garaian haurraren ondoan egon zedin, baina hezitzaileak argi zuen eskola-orduetan ikastetxeak jarri behar zituela ikasleari arreta emateko baliabideak.

Gertakari honek egoera leherrarazi zuen: Aimarrek eta gela bereko neska batek ikasgelan zerbait puskatu zuten, eta neskaren aitari bakarrik deitu zioten gaiari buruz hitz egiteko. Bilera hartan erabakiak hartu ziren, erreferentziako hezitzailea alde batera utzita. Hezitzaileak onartezintzat jo zuen bera kontutan hartu gabe ikastetxeak erabakiak bere kabuz hartu izana.

4. egoera: Ilazki, transexualitate prozesuen hautematea.

Ilazki 3. mailan dagoen neskatoa da, ausarta, lehiakorra, azkarra eta kiroletan oso trebea. Bera baino zaharragoa den anaia du eta bera bezala janztea eta bera jolasten den jokuetan aritzea gustuko du. Gurasoek ez diote inoiz Ilazkiren nahiei trabarik jartzen. Bere egunerokotasunean “mutilen” arropa jantzi nahi izaten du eta gurasoek bere nahia onartzen dute. Zenbaitetan, gurasoek aukeran ematen diote zer jantzi nahi duen berak erabaki dezan. Adibidez, gabonetan, euskal jantzi tradizionalak janztean, bi jantziak ipintzen dizkiote ohe gainean baina berak beti “mutilen” jantziak aukeratzen ditu. Hala ere, gurasoek hizkuntzaren trataera femeninoa darabilte berari erreferentzia egiteko.

Ikastetxean mutilekin jolasean aritzeko ohitura du, baina neskekin ere ondo moldatzen da orohar eta bere gelakideek den bezala onartzen dute. Ez dute baztertzen nahiz eta, denak ohartzen diren, mutilei egotzen zaizkien roletan gusturago aritzen dela. Ikastetxean ez diote inolako trabarik jartzen zein arropa jantzi nahi duen edo zein taldeetan egon nahi duen erabakitzerakoan. Adibidez, ikasgelan Txinako kultura lantzen ari dira orain eta Geishaz edo gerlariz mozorrotzea erabaki dute. Gelako neska guztiek Geishaz jantziko direla erabaki arren, Ilazkik, gerlariz mozorrotzea erabaki du. Neska eta mutilen arteko talde banaketak egiten direnean ere, Ilazkik, mutilen taldean egon nahi izaten du. Egoera guzti hauen eraginez, irakasleak zenbaitetan, mutila balitz bezala zuzentzen dira beregana, mutilen roletan eta mutil taldeetan ikustera ohitu baitira. Horrelakoetan, Ilazki ez da kexatzen, baina irakasleek ez dute argi zergatik den, maiz gertatzen zaion egoera izanik horretara ohitu egin delako edo mutil gisa izendatzea gustuko duelako.

Bada kontutan hartzeko beste egoera adierazgarrikeri ere. Heziketa Fisikoko irakasgaian dutxara joaten direnean, Ilazki nesken aldageletara joaten da. Nahiz eta Ilazkik inoiz ez duen honekiko kexarik agertu, aldageletatik lehenbailehen irteten saiatzen dela ohartu dira irakasleak.

Familian, herrian zein ikastetxean Ilazki ondo onartua dela esan badaiteke ere, irakasleek ez dute argi egoera honen aurrean esku hartzea komeni den edo ez. Esku hartuz gero, gaur egun haurren testuinguru desberdinetan inolako arazorik sortu ez duen jokabidea arazo bilakatzearen beldur dira irakasleak. Esku hartzen ez bada ordea, herritik irteten denean bere jokabidea onartua ez izatea eta bere janzkera eta itxura fisikoagatik epaitua izan daitekeela uste dute. Erabakia zailtzen duen beste aldagai bat, Ilazkik, azken garaian bere gertuko lagun batzuei Eneko deitzeko eskaera egin diela da. Beraz, une honetan, talde batzuetan Ilazki gisa ezagutzen dutena beste testuinguru batzuetan Eneko bihurtzen da. Guzti hau kontutan hartuta, irakasleek ez dakite nola heldu gaiari.

5. egoera: Hizkuntza aniztasuna Eibarren.

Eibarko ikastetxe publikoa. D eredua. Eskolan orokorrean etorkin asko daude, baina guk gela jakin bateko egoerari erreparatuko diogu: Lehen Hezkuntzako 5. mailako 24 ikaslez osatutako gela bat da, kulturalki eta hizkuntzari dagokionez oso anitza. Honela dago osatuta:

- Bederatzi ikaslek euskara/gaztelania ez beste hizkuntza batzuk dakartzate etxetik. Horietako lau Euskal Herrian jaioak dira: marokoar bat (etxetik tamazightera), saharar bat (etxetik tamazightera), txinatar bat (etxetik txinera) eta errumaniar bat (etxetik errumaniera). Beste bost, berriz, etorkinak dira, Euskal Herritik kanpora jaiotakoak: bolibiar bat (etxetik kitxua eta gaztelania), bi nikaraguar (etxetik gaztelania) eta bi pakistandar (etxetik hindiera).

- Hiru ikasle etorri berriak dira (otsaila da): portugaldar bat (etxetik portugesa, abenduan iritsia Lisboatik) eta 2 senegaldar (etxetik wolofera, ekainean iritsiak Ondarroatik).

- Zortzi ikasle etxetik gaztelaniadunak dira.

- Lau ikasle etxetik euskaldunak dira.

Eguneroko gelako dinamikari dagokionez, ikasleek talde kooperatiboetan egin ohi dute lan. Taldeak heterogeneoak dira ikasleen etxeko hizkuntzari dagokionez. Ahozko komunikazioa baino gehiago lantzen da idatzizkoa, eta azken honetan, erregistro formala bakarrik. Ikasle gehienek erregistro formal edo akademikoetan zailtasunak dituzte, baina baita erregistro ez formalean ere.

Hauxe da egoera orokorra hizkuntza gaitasunari dagokionez:

Etxetik euskaldun direnek gaitasun aldetik ez dute arazorik. Erabilerari dagokionez, euren artean tarteka euskaraz egiten duten arren, orokorrean gaztelera gailentzen da. Konturatzen dira gelan gutxiengoa direla, nahiz eta hauetatik hiru bereziki animatuta egon ohi diren euskaraz ondo moldatzen ez direnei laguntzeko. Etxetik bestelako hizkuntzak dakartzatenekiko aldea handia da.

Etorri berria den ikasle portugaldarra nahiko justu dabil ulermenean. Gela barruan beste ariketa batzuk egiten ditu gehienetan eta egunean 2 ordu pasatzen ditu gelatik kanpo HIPI irakaslearekin. Ez du gelako interakzioan parte hartzen eta irakasleak ere ez dira parte har dezan saiatzen, hizkuntza aldetik mugak dituen denbora gehiago beharko duelakoan. HIPI irakaslea duela urte eta erdi iritsi ziren pakistandar batekin eta bi nikaraguarrekin ere egoten da. Hauekin ere gelatik kanpo. Akademikoki zailtasunak dituzte (etxeko egoera ere ez da ona). Pakistandarra oso lotsatia da eta ez du asko parte hartzen gelan, eta nikaraguarrek motibazio falta handia daukate ikasketekiko (jarrera txarra ere bai, askotan).

Bestetik, senegaldarrak oso ondo moldatzen dira euskaraz. Ondarroan bizi izan dira 4 urte zituztenetik eta ohituta daude euskara eremu formal eta ez formalean erabiltzen. Oso irekiak dira eta erraz integratu dira gelan. Ikasle hauek gaztelaniaz baino hobeto moldatzen dira euskaraz eta gainerako ikaskideei euskaraz hitz egiten diete normalean.

Orokorrean, etxetik euskara ez dakarten ikasle asko (etorkinak izan zein ez) ez daude motibatuta euskara ikasteko. Euren artean euskarak ez dauka balio handirik, ez diote erabilgarritasunik ikusten eta ez dute erabili nahi izaten. Euskararen ezagutzari dagokionez autopertzepzio eskasa dute: daukatena baino maila baxuagoa daukatela iruditzen zaie eta horrek emaitza akademikoetan ere eragiten du. Gutxi batzuk salbu, H2 euskara duten gehienek ahozko zein idatzizko ekoizpenean eta idatzizko testuen ulermenean mugak dituzte.

Euskaldunak ez diren gurasoen partetik ere ez da euskararekiko jarrera oso positiboa nabari. Irakasleen ustez, guraso etorkin batzuek ez dute ulertzen zergatik ikasi behar duten beren seme-alabek euskara, gaztelania jakinda ederki molda badaitezke. Edonola, irakasleek aitortzen dute guraso hauekiko harremana oso noizbehinkakoa eta trabaz beterikoa dela, askotan, hizkuntza komun bat ez izatearen ondorioz. Era berean, irakasleek autokritika egiten dute: ez daukate gelan dituzten ikasleen ama hizkuntzen inguruko informazio eta jakintza nahikorik.

Ikasleen etxeko hizkuntzek ez dute tokirik gelan, ezta ikastetxean ere. Gabon partean, kultur-aniztasunaren astea egiten da eta ikasle bakoitzaren lurraldeko ezaugarri tipikoak lantzen dira bertan.

Horretaz gain, udaberrian, Munduko Arrozen Eguna ospatzen dute ikastetxeko atearik ikas-komunitate osoari zabalduz, baina irakasleak bat datoz: polita izaten den arren, ez da eraginkorra. Halaber, ez dago ikasle hauek eskolan (eta herrian) integratzeko proiektu iraunkorrik. Besterik gabe, eta curriculumari jarraituz, euskara eta gaztelania (gehi ingelesa) ikasi behar dituzte, eta hizkuntzari dagokionez, hori da eskolaren zereginik behinena.

6. egoera: Euskararen normalizazioa Irunen.

Irunen dagoen eskola publiko handi bat, Lehen Hezkuntzan bost lerro dituen maila bakoitzeko, D ereduari. Hirugarren mailako 23 ikasleko gela bati erreparatuko diogu, baina. Honela dago osatuta:

-12 ikasle etxetik gaztelania dakarte.

-8 ikasle etxetik euskaldun dira.

-Ikasle batek etxetik errumaniera dakar. Etorriena da, hiru urte zituela iritsi zen Euskal Herrira

-Bi ikasle etorri berriak dira: bata, etxetik tamazighera dakar; irailean hasi zuen ikasturtea, gainerakoekin batera. Besteak, etxetik hindiera dakar; azaroan hasi zuen kurtsoa.

Gelako giroa ona da orokorrean, goxoa eta adeitsua, baina hizkuntzari dagokionez gaztelania da nagusi. Irakasleak jabetu dira gela barruan gehiago egiten dutela euskaraz gelatik kanpo baino. Baina gela barruan ere, euren kasa ari direnean lanean (talde kooperatiboetan) gaztelaniarako joera erakusten dute.

Etxetik euskaldun diren 8 ikasleek geroz eta joera handiagoa dute euren artean eta gainerako gelakideekin hitz egiterako orduan gaztelarara jotzeko eta gaztelara eta euskara nahasian erabiltzeko, batez ere akademikoa ez den jardunetan. Akademikoki ez dute arazorik euskaraz jarduteko. Hizkuntza gaitasuna ondo garatzen ari dira eta hizkera ez formalerako ereduak ere badituzte.

H2 euskara duten ikasle askok hizkuntza gaitasunean zailtasunak dituzte. Euskaraz esan eta irakurritakoa ulertzeko zailtasunez gain, euskaraz hitz egin eta idazteko orduan oso mugatuta daude. Irakasleari zaila egiten zaio denei laguntzera iristea. Taldeka multzokatuta daude, baina ez da nahikoa: ematen ari den elkarrekintza ez da nahikoa ikasleek modu eraginkorrean jarduteko, eta batez ere, hizkuntzarekin zailtasun gehien dituzten haurrak ez dira espero zen erritmoan aurrera egiten ari. Ez da bakarrik maila akademikoan jarduteko hizkuntza ereduak dituztela faltan, baizik eta erregistro ez formalean aritzeko ere herren nabariak dituztela orokorrean,

Etorri berriek dagokienez, hau da egoera (abendua da):

-Etxetik tamazighera dakarrenak irailean hasi zuen kurtsoa, baina irakasleek urrira arte ez zuten jakin hau zela bere ama hizkuntza, arabiera zela uste zuten. Gustura ikusten zaio klasean, lagunak egin ditu, eta euskarazko esaldiren bat josten hasia da.

-Pakistandarra aurreko hilabetean iritsi zen. Bera baino urtebete gazteagoekin jarri dute adinkideek baino maila akademiko apalagoa duelako. Ez dirudi eskolan gustura dagoenik: motibazio gabe eta triste ikusten zaio. Jatorriko lagunak eta senideak faltan hartzen ditu. Itxita dago, hitz egiteko gogo gabe, ez irakasleekin ezta gelakideekin ere.

-Irakasleek, ikasle hauek gelan integratzea nahi dute, baina hizkuntzaren muga dela eta, gainontzekoek taldeka lan egiten duten bitartean, bi ikasle hauek aparteko lanak egiten egon ohi dira. HIPIaren laguntza jasotzen dute, baina beti gelatik kanpo. Honen ardura nagusia ikasle hauek eskolako egunerokotasunean eroso sentitzeko behar dituzten hizkuntza baliabideak lantzea da, baina ez dute gelako egunerokotasunean gehiegi parte hartzen. HIPIak lehenengo egunerokotasunerako beharrezkoa dutena irakatsi nahiko lieke eta behin moldatzen direla ikusitakoan saiatu gelako parte izan daitezten.

7. egoera: Maitane, genero indarkeriaren aurpegi anitzak.

Maitanek 8 urte bete zituen aurreko astean. Neska alaia, jatorra, mugitua, kirolaria, eta jakin-min handia erakusten duen horietako bat da. Taldean betidanik izan da maitekorra, lagun asko dituen, bai neskak, baita mutilak ere. Izaeraz, ez da inoiz liderra izan, baina bai lagunzale eta dibertigarria. Hala eta guztiz ere, azken bolada honetan bere ama kezkatuta dago. Etxean urduri, triste, eta haserre antzematen duelako Maitane, eta bere ahizparekin hizketan ari dela eta, haserretzen denean, oso hiztegi zakarra eta sexistak erabiltzen hasi delako.

Amak galdetzean, Maitanek bere amari bere gelako mutil bat, Mikel, berarekin maiteminduta dagoela esan dio, baina berak ez du nobiorik izan nahi. Amak oso kezkatuta ikusi du alaba, eta gainera, eskutitz bat aurkitu du non Mikelek hurrengo esaten dion: “nirekin ezkondu nahi duzu? Ezkondu nahi ez baldin baduzu, bortxatuko zaitut”. Gelako beste neskak ere berdina esaten hasi dira. “Mikelekin ezkondu behar duzu, bestela, bortxatuko zaitu”. Mikelek hori esaten duenean, gelako beste mutilak parrez hasten dira eta Mikel geroz eta gehiago aipatzen ditu horrelakoak.

Honetaz gain, amari, eskolako neska eta mutilen arteko harremanak geroz eta matxistagoak bihurtzen ari direla iruditzen zaio. Neskak neskekin eta mutilak mutilekin aritzea ez zaio arraroa egiten, baina bere alaben bila joaten den askotan, neska eta mutilen arteko harremanak sexistak bihurtzen ari direla konturatu dela aipatzen du. Adibidez, beraien antolatutako rol jokoetan neskek etxeoandreaaren rola hartzen dute, eta mutilek fabrika lan egitearena, etxeko lanetan parte hartu gabe. Ez daki nola baloratu azken hau. Gainera, adin honetan, “zutaz maiteminduta dago”, “ezkonduko gara”, eta horrelakoak entzutea agian normala dela dio, baino honela bada ere, harreman afektiboak landu behar direla uste du.

Gaur Mikelek etxetik eskutitz bat ekarri dio Maitaneri. Goxoa, xumea eta barkamena eskatuz. Gainera, paperez egindako lore-sorta polit bat oparitu nahi zion. Maitanek ezetz esan dio eta alde egin du.

Amak bilera bat eskatu du honetaz guztiaz hitz egiteko eskolarekin. Hauexek dira azaldu nahi dituen kezkek:

- Maitaneren egoera Mikelekiko.
- Gelako neska eta mutilen arteko harreman matxistak (bere ustetan).
- Eskolan zer nolako neurriak hartuko dira, neska-mutilen arteko harremanak osasuntsuak izateko.
- Berak zer egin dezake, Maitaneri laguntzeko eta orokorrean umeen arteko harremanak hobetze aldera.

8. egoera: Eneko, goi mailako gaitasunen identifikazioa.

Enekok 9 urte ditu. Gelan erakusten duen errendimendua ona da, baina askotan bere munduan murgilduta egoten da, despistatua. Hala ere zertaz ari garen galdetzen zaionean, gehienetan badaki kokatzen, eta edukiak oso ondo ezagutzen ditu. Egin behar errepikakorrak burutzen motela da batzuetan, adibidez zatiketetako fitxak egitean. Dena den, erronka berrietan eta arrazoinamendu handiagoa eskatzen duten arazo konplexuetan, oso azkarra da.

Galdera irekiei ematen dizkien erantzunak deigarriak dira. Erantzun originalak, ezohikoak, oso sortzaileak dira, zeinetan barne mundu aberatsa daukala erakusten duen.

Tutorearekiko harremana ez da oso ona, gehienbat ezarritako arauei jarraitzea kosta egiten zaiolako. Bere ideiak defendatzen oso tematia da, eta estimuluekin zigorrekin baino hobeto funtzionatzen du. Zerbait interesatzen bazaio bere arreta erabatekoa da, baina interesatu ezean erraz galtzen du haria (deskonektatzen du).

Gizarte harremanei dagokionean, ez da oso estimatua, bere adiskideekin oso zorrotza delako. Zuzentasuna eta laguntasuna ulertzeko modu berezia du: ez du onartzen jolasen arauak ez jarraitzerik, gezurrak esaterik edo bidegabekeriarik ere. Esaten zaion guztia oso estu hartzen du, ikaragarri sentikorra da.

Gurasoek diotenez, oso gogoko dituen gaiekiko jakin-min handia adierazten du eta haiei buruz irakurri eta ikertu egiten du. Gelaz kanpo, oso lasaia, hitzuna eta sentikorra da. Nagusiekin harreman ona izatea gustatzen zaio, hauekin hitz egiteko gaiak erraz aurkitzen baititu.

Zenbait irakasleek gaitasun intelektual goreneko ikaslea dela pentsatzen dute. Beste batzuek, ordea, eginbeharrak burutzen gehiegi atzeratzen dela, sarritan huts egiten duela eta gurasoek nagusitzat hartuta, gainestimulatzen (balioesten) dutela pentsatzen dute. Halaber, bada kasu honetan alderdi soziala

lehenetsi beharko litzatekeela uste duen irakaslerik, ikaskideek berari buruz “arraroa” dela esaten dutelako eta, ziurrenik etxean jasotzen duen heziketa dela medio, (gurasoek eskatzen duen guztia eskaintzen diote eta momentu oro bere eskakizunak betetzeko prest daude) arauak betetzea kosta egiten zaiolako.

2. eranskina: lehen zirriborroa egiteko eskema

Lana egin aurretik, honako txostena aurkeztu beharko zaie irakasle guztiei. Irakasleak, proposamenaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu ondoren, beren iritzia emango diete ikasle-taldeei.

1. Egoeraren azterketa egin ondoren, egoeraren azalpen laburra: egoeraren gakoak identifikatu eta honen inguruan hausnartu ondoren, paragrafo batean azaldu beharko da taldeak egoeraren zein irakurketa egiten duen.

2. Esku-hartzearen behin behineko helburuak: zeintzuk izango dira identifikatu ditugun gakoetatik abiatuta gure esku-hartzearen helburu nagusiak? Zer lortu nahi dugu diseinatuko dugun esku-hartzearen bidez?

3. Informazio iturriak: aztergai duzuen egoeraren inguruko informazioa bilatzeko baliagarriak izan daitezkeen liburu edo aldizkari zientifikoetako erreferentzien zerrenda (gutxienez 8).

4. Informazioa bildu eta partekatze prozedura: egoera horren ezagutzan sakontzeko bilatu beharreko informazioa zein datu basetan bilatuko den eta lan hori taldekideen artean nola banatuko den azalduko da, baita bildutako informazioa taldekideen artean nola partekatuko den ere.

3. eranskina: bigarren zirriborroa egiteko eskema

Bigarren zirriborroak hiru atal izango ditu:

1. Marko teorikoa: gaiaren inguruan irakurri eta beharrezko kontsulta guztiak egin ondoren, bertatik ateratako eduki teorikoak jasoko dira autore desberdinek diotena uztartuz eta konparatuz. Testuan bertan, ideia horiek zein liburu edo artikulutatik atera diren zehaztuko da APA araudiari jarraituz (testu barruan zein erreferentzia bibliografikoen zerrendan). Bigarren zirriborro honetan, beraz, lanaren marko teorikoa garatuko da.

2. Esku hartzearen behin betiko helburuak: marko teorikoan bildutako edukiak kontutan hartuta, behin behineko helburuak errepasatu eta berregingo dira behin betiko helburuak finkatzeko.

3. Erreferentzia bibliografikoak: marko teorikoa osatzeko erabilitako erreferentziak jasoko dira APA arauen arabera (bai testu barruan eta bai erreferentzia bibliografikoaren zerrendan).

4. Talde-dinamikaren inguruko hausnarketa: talde lanaren errubrika baliatuz egindako hausnarketa entregatuko da paragrafo batean laburbilduz.

4. eranskina: talde lanerako errubrika

TALDE LANA VERSUS LANTALDEA/ELKARLANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA		(BALORAZIOA: 1: ESKAS; 2: HOBETU BEHAR; 3: NAHIKO; 4: OSO ONGI; 5: BIKAIN)				
IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	1	2	3	4	5
EKARPENAK eta PARTAIDETZA	<ul style="list-style-type: none"> - Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. - Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. - Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak eta saiatzen da hauek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Ezagutza sakontzeko besteei ideien argudioak eskatzen dizkie. - Ulertzen ez duenean galdetzen die lankideei, eta azalpena berak baldin badaki lankideei eskaintzen die. 					
JARRERAK	<ul style="list-style-type: none"> - Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du, - Besteen partaidetza bultzatzen du. - Lankideei laguntza ematen die eta beren merituak aitortzen ditu. - Ideiak kritikatzeko dituzte, ez pertsonak. - Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta lankideen gogo-aldarteak kontuan hartzen saiatzen da. - Zailtasun aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak. 					
ERANTZUNKIZUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Adostutako arauak betetzen ditu. - Bere lanak adostutako epeetan ematen ditu. - Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazioa. - Lana eman baino lehen orraztu egiten du. - Hartutako konpromisoak betetzen ditu. 					
AGERTZE eta PUNTUALTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera guztietara agertzen da. - Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. - Kaleren bat egiten bada edo berandu ailegatu bada ongi justifikatzen du. 					
GATAZKEN KONPONKETA	<ul style="list-style-type: none"> - Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. - Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. - Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. - Tentsioak bideratzen saiatzen da. - Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du. 					
	<p>Egokitua. Iturriak: Johnson, D.W eta Johson, R.T. (2014): <i>La evaluación en el aprendizaje cooperativo</i>. Espainia, Edit. SM.</p> <p>Chica Merino, E. (2011). Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. <i>Escuela Abierta</i>, 14, 67-81.</p>					

5. eranskina:lan idatziaren ebaluaziorako errubrika

EDUKIAK	6	Koherentzia	Ideiek progresio logikoari segitzen diote. Ideiak integraturik daude testuaren osotasunean, jauzi handiegirik gabe eta estilo-jauzi handirik gabe. Batasuna antzematen da. Aztergaia finkatuta dago. Proposatutako egituraren arabera antolatu da. Irakurlea ez da erraz galtzen. Antolatua dago.
		Diziplinartekotasuna	Aztergaia enfokatu eta garatzean, diziplina ezberdinen ikuspuntutik aztertzeko ahalegina antzematen da. Irakasgai guztietatik nolabaiteko irakurketa edo ekarpena ikusten da.
		Dokumentazioa	Informazio iturri aberasgarriak eta askotarikoak erabili dira.
		Analisia	Eduki teorikoen eta aztertzen den egoeraren arteko lotura egiten da.
		Ondorioak eta proposamenak	Proposamenak egokiak eta baliagarriak dira aztertu den egoerarako. Hobekuntzarako plan horiek egingarriak dira.
		Hausnarketa	Prozesuaren amaieran, lana egiterakoan izandako ahulgune eta indarguneak agerian uzten dira. Ikaskuntza prozesuaren gaineko talde hausnarketa egiten da.
FORMA	4	Ideien Antolaketa	Ideiak paragrafotan banatzen dituzte eta ideia nagusiak argi adierazita daude.
		Kohesioa	Ideien arteko loturak modu egokian egin dira, erreferentzia mekanismoak (sinonimoak, anafarak ...) eta lotura mekanismoak (lokailuak, antolatzaileak) behar bezala erabiliz.

		Terminologia	Kontzeptu eta terminologia espezializatua erabili da eta lan akademikoei dagokien erregistroa erabili da oro har. Hiztegiaren erabilera zaindu dute.
		Formatua	Egituraketaren alderdi formalak errespetatu ditu: orrien zenbakitzea, azpi-izenburuak ...
		Erreferentziak	Erabili dituen iturriak egoki daude aipaturik, bai testuan integratuta eta bai amaieran, erreferentzia bibliografikoen atalean, APA arauari jarraituz.
		Zuzentasuna	Hizkuntzaren alderdi formalak errespetatu dituzte. Egindako akatsak ez dira sistematikoak eta ez dira larriak. Sintaxia, puntuazio-markak, deklinabidea, mugagabe/mugatua eta halako elementu linguistikoak ondo erabili dituzte.

6. eranskina: mahai-inguruaren ebaluaziorako errubrika

EDUKIA	6	Sintesia	Talde bakoitzeko bozeramaileak behar bezala sintetizatu du egindako lana emandako denboran. Modu koherentean antolatu ditu ideiak eta argi azaldu du lanaren edukia.
		Hausnarketa	Taldeetako partaideek solasaldian parte hartu dute eta lanaren inguruko hausnarketa kritikoa egin dute. Besteen lana eta ekarpenak aintzat hartuta, landutako edukien eta ezagutzen gainean modu kolektiboan hausnartu dute.
		Hobekuntza proposamenak	Beren lanetik nahiz beste taldeen iritzi eta hausnarketatik abiatuta, beren lanean egingo lituzketen hobekuntzak proposatu dituzte taldekideek.
FORMA	4	Zuzentasuna	Hizkuntza zuzen erabili dute taldeko kideek eta ez dute akats larririk egin.

		Egokitasuna	Mahai-inguru akademikoak eskatzen duen formaltasun maila mantendu dute beren parte hartzeetan. Txandak errespetatu dituzte eta besteekiko errespetuz jardun dute hitza hartzean.
--	--	--------------------	--

7. eranskina: aipiak jasotzeko araudia (APA arauak)

Testu barruan jasotzen diren aipiak honela jaso behar dira:

- **Bi autore** agertzen direnean, beti bi autoreak jarriko dira.

Adibidez: Bernaras eta Jaureguizarrek (2010) **diote** ...

Eguraldi ona egingo du (Bernaras eta Jaureguizar, 2010)

- **Hiru eta bost autore** bitartean, lehenengo aldiz autore guztiak jarriko dira, gero, lehenengoa et al.

Adibidez: Bernaras, Jaureguizar eta Soroak (2010) **diote** ...

edo

Bihar eguraldi txarra egingo du (Bernaras, Jaureguizar eta Soroa, 2010)

Bigarren aldian aipua egiterakoan, Bernaras et al., (2010); (Bernaras, et al., 2005)

- **Sei autore baino gehiago** badira, 1. autorea eta gero, et al.

Adibidez, Bernaras, et al.,-**en ustez** (2005), edo

Bihar eguraldi txarra egingo du (Bernaras, et al., 2005)

Erreferentzia bibliografikoetan autore guztien izenak jarriko dira, koma bidez banatuta. Azkenaren aurrean "eta" jarriko da (& ingelesez).

Erreferentzien atalean ARTIKULUAK nola zitatu:

Kelchtermans, G. (1996). Teacher vulnerability: Understanding its moral and political roots. *Cambridge Journal of Education*, 26(3), 307-323.

Bi eta sei autore bitartean

Adibideak:

Kernis, M. H., Cornell, D. P., Sun, C. R., Berry, A., eta Harlow, T. (1993). There's more to self-esteem than whether it is high or low: The importance of stability of self-esteem. *Journal of Personality and Social Psychology*, 65, 1190-1204.

Llopis, E., Roselló, E., eta Villaroya, J. (2009). "Fills de Kassim" un musical para educar en la convivencia cultural. *Eufonía: Didáctica de la música*, 47(1), 104-116.

Sei autore baino gehiago

Lehenengo 6 autoreen izena jarriko da eta gero et al.

Adibidez:

Wolchik, S. A., West, S. G., Sandler, I. N., Tein, J., Coastworth, D., Lengua, L. , et al. (2000). An experimental evaluation of theory-based mother-child programs for children of divorce. *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, 68(8), 843-856.

Artikulua *interneten bidez* lortuko bagenu, honela zitzate behar da:

Bernaras, E., Jaureguizar, J., Soroa, M., Ibabe, I. eta de la Cuevas, C. (2013). Evaluación de la sintomatología depresiva en el contexto escolar y variables asociadas. *Anales de Psicología*, 29, 131-140.

Helbide honetatik ateratakoa: <http://www.xxxx>

DOI

Bernaras, E., Jaureguizar, J., Soroa, M., Ibabe, I. eta de la Cuevas, C. (2013). Evaluación de la sintomatología depresiva en el contexto escolar y variables asociadas. *Anales de Psicología*, 29, 131-140. doi: 10.6018/analesps.29.1.137831

Liburuak

Aldecoa, J. (1992). *Historia de una maestra*. Barcelona: Anagrama.

edo

Aldecoa, J. (1992). *Historia de una maestra*. Barcelona: Anagrama. **Helbide honetatik ateratakoa:** <http://www.xxxxxx>

Bramwell, D., eta Bramwell, Z. I. (1990). *Flores silvestres de las islas Canarias*. Madrid: Rueda.

García Marí, F., Costa Comelles, J., eta Ferragut Pérez, F. (1994). *Las plagas agrícolas*. Valencia: Phytoma.

Liburuen kapituluak

Boekaerts, M. (2009). La evaluación de las competencias de autorregulación del estudiante. In C. Monereo (coord.), *PISA como excusa: repensar la evaluación para cambiar la enseñanza* (55-69). Barcelona: Graó.

Álvarez, I., y Gómez, I. (2009). PISA, un proyecto internacional de evaluación auténtica: luces y sombras. In C. Monereo (coord.), *Pisa como excusa: repensar la evaluación para cambiar la enseñanza* (91-110). Barcelona: Graó.

Kongresuetan eta Sinposioetan egindako kontribuzioak ere horrela zitzaten dira:

Adibideak:

Fraga González, C. (1982). Carpintería mudéjar en los archipiélagos de Madeira y Canarias. In *Actas del II Simposio Internacional de Mudejarismo: arte* (303-313). Teruel: Instituto de Estudios Turolenses.

Aguilera Klink, F. (2003). Vigencia y necesidad de la nueva economía del agua. En P. Arrojo Agudo y L. del Moral Ituarte (coords.), *La directiva marco del agua: realidades y futuros: III Congreso Ibérico sobre Gestión y Planificación de Aguas* (175-184). Zaragoza: Universidad de Zaragoza.

Interneteko baliabideak nola zitatu

Gutxienez honako datu hauek azaldu behar dira:

- Dokumentuaren egileak eta izenburua
- Helbide honetatik ateratakoa: <http://www.xxxxxxx>

Adibidez:

Sabaté Bel, F. (2005). La isla-continente que quisieron convertir en continente-isla. *Rincones del Atlántico*, 2. **Helbide honetatik ateratakoa** <http://www.rinconesdelatlantico.com/num2/isla-continente.html>

OHARRA: APAko 7. bertsioan, kokalekua erreferentzietan sartzeari EZ da beharrezkoa.

8. eranskina: taldeen fitxa

ANIZTASUNA ESKOLAN MODULUKO LANA 22/23

LAN TALDEAREN IZENA:

LAN TALDEAREN E-MAILA ETA TELEFONO ZENBAKIA:.....

HAUTATUTAKO EGOERA

Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:

9. eranskina: moduluaren ebaluazio gida ikasleentzat

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko konpetentziak txosteneko 3. eta 4. orrialdeetan topatuko dituzue)

- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?

- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue ...).

- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute ...).

- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?

10. eranskina: moduluko lana egiteaz salbuestea

Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.

Graduko ikasleek moduluko lana egin beharko dute, baldin eta gutxienez, modulu bateko bi irakasgaitan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango.

Moduluko lana egiteaz salbuetsita dauden kasuan, ikasleek ez dute beste frogarik egin beharrik izango. Kasu honetan, irakasgaiaren nota 10etik emango da eta irakasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du moduluan landu beharreko konpetentziak irakasgaiko ebaluazioan nola barneratuko diren.

11. eranskina: moduluko lana gainditu ezean

Moduluko lana gainditzea ezinbestekoa izango da irakasgai guztiak gainditzeko. Moduluko lana gainditu ezean, ezohiko deialdian berriro aurkeztu beharko da lana. Ezohiko deialdian ere gainditzen ez bada, hurrengo ikasturtean EZINBESTEKOA izango da lan modularra berriro egitea. Kasu honetan, irakasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du lan modularra egiteaz gain zein beste ebaluazio prozedura erabiliko duen irakasgaiari dagokion edukia gainditutzat emateko.